



Puska Biltzea, Kaldereroen eta Inauterien atarikoa

Axeri Dantzako kideak Sorabillako baserrietan barrena ibiliko dira, larunbat goizean. Eguerdia aldera saioa eskainiko dute auzoko frontoian / 5

Amaia Agirreri azken agurra

Larunbat honetan izango da Urnietako San Juan plazan, 17:00tan hasita / 13

Santa Ageda
bezperako kantu
erronda. Urnietan
12:00tan, Andoainen,
18:00tan / 14

Ontza elkarteko
kideen aitortza
Joxe Manuel
Erkizia Uria
elkartekideari / 4



EGAPE

Urnietarren
ikastola
publikoa

MATRIKULA



BILERAK ETA ATE IREKIAK

Otsailak	2 URTE
7	17:00 Etxeberri
Otsailak	DBH
8	17:00 DBH eraikina

www.egape.eus

HH-LH	egape@egape.eus	943009275
DBH	egapebhi@egape.eus	943899425







Izeia lurrindegia. AIURRI

Bi denda itxi dira Andoainen denbora tarte txikian

Juan Bautista Erroko Izeia lurrindegia, eta Kale Nagusiko Haitzetan harategia

Erredakzioa ANDOAIN

Tokiko merkatarien itxierak ez du etenik. Egun hauetan ibilbide oparoa izan duten beste bi negozio itxi dituzte. Bate-tik, Juan Bautista Erro kalean zegoen Izeia perfumeria. Urte luzez herrikide askori zerbitzua eman dion negozioa da. Une honetan lokala erabat hustuta ageri da. Bestetik, Haitzetan harategiak ateak betiko itxi dituela dirudi. Une honetan itxitako negozioen zerrenda luzean daude. Iturza janari-denda Goikoplazan, Kukutegi harategia Kale Nagusian, Begoña arraindegia Ondarretan... Ibilbide luzeko negozio asko itxi da azken aldi honetan.



Haitzetan harategia. AIURRI



Bazkideen afaria egin zuten larunbat gauean, Ontza elkarte. Aitortza ekitaldia egin zuten afalostean. AIURRI

Aitortza ekitaldia Erkiziari

Urteko sasoi honetan elkarte gastronomikoetan batzarrak izan ohi dira, iazko kontuen berri eman eta urte berriari begira jartzeko. Ontza elkarte batzarraren ostean afaria antolatu zuten, eta afalostean bi bazkide omendu zituzten

Xabier Lasa ANDOAIN

Pedro Elustondo ohorezko bazkide izendatu zuten, afalosteko ekitaldian. Eta elkarte zuzendaritzak ezusteko polita antolatu zion Joxe Manuel Erkizia Uria kaletxikitarrari eta, era berean Ontza elkarte bazkide denari. Udaberrian, ehun urte beteko dituela eta, plaka bat oparitu zioten.

Plaka horretan bere argazkia eta Aitor Mendiluzek prestatu-riko bi bertso ageri ziren. Honako hauexek:

Joxe Manuel, ehun urte ez da bide motza. Kaletxikiko pieza

ehiztari zorrotza. Euskal Herriak bete dizula bihotza, eskertzeko egin nahi dizugu aitortza. Zu bertan izateaz harro dago Ontza.

Bizitzari enbido, ezinari paso, pare ederrak eta jokoan eraso. Dena ez zen gozoa izango akaso, baina zure elkarte eta zure auzo, bihotzez, gu guztion zorionak jaso.



Afarian Pedro Elustondo Zalakain ohorezko bazkide izendatu zuten. AIURRI

Lagunarteko giroan zeudela, taldeko argazkia atera zuten ekitaldiaren amaieran.

Urteak betez, erremontea biziz

Joxe Manuel Erkiziak zaletasun handia dio erremonteari, eta Endika Barrenetxearen jarraitzaile amorratua da. Larunbatero Galarretan izaten da, hutsik egin gabe. Ontzako ekitaldiari begira, Aiurriren ekimenez eta Endika Barrenetxearen eskuzabaltasunari esker, opari ederra jaso zuen Erkiziak. Oso eskertuta zegoen.



Beñat, Joxe Manuel, Miren eta Joxeba, Barrenetxearen opariekin. AIURRI

POSTONTZIA

IKASTAROETAKO IKASLEAK ANDOAIN

Eraginkortasuna edo sentsibiltate eza

Duela bi hilabete gutxi gorabehera, Andoaingo Udalaren gutun bat jaso genuen eta bertan adierazten zitzaigun pintura, eskultura eta gainerako ikastaroak, 2023ko urtarrila arte, etenik geratzen zirela, zehaztu gabeko zenbait aldaketa egin ahal izateko. Urtarrilaren amaieran gaude eta oraindik ez dugu inongo berririk jaso.

Izan ere, adin bateko pertsona talde bat kaltetuak suertatu gara, ez bakarrik gure zaletasunetan (pintura, taila...), baizik eta oreka emozionalerako funtsezkotzat jotzen dugun beste alderdi batean, hau da, gure adin bereko beste pertsona batzuekin uneak partekatzean.

Jarduera horietan parte hartzen dugun pertsonen beharrak kontuan hartu izan balira, Udalak aipatzen zituen egin beharreko aldaketak, alde aurretik kudeatu zitzakeen, ikasturte honetan ikastaroak eten beharrik ez izateko. Beraz, gertaera honetatik ondoriozta daitekeena, kudeaketan, eraginkortasun eza edo gure beharrengan sentsibiltate falta nabarmena da.

Egoeraren aurrean, jakinarazi zitzaigun bezala ikastaroak lehenbailehen martxan jartzea eskatzen dizuegu. Zuen erantzunaren zai gelditzen gara.

aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia
- Komunitatea

PROTAGONISTA

"Aurten, Sorabillan ariko gara, baserriz baserri"

IZASKUN BERAZA AXERI DANTZAKO KAPITAINA

Larunbat honetan Andoaingo axeriak Sorabillako baserrietan barrena ibiliko dira, aspaldiko usadioa biziberritzeko. Sorabillako frontoian amaituko da Puska Biltzea

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Neguko ospakizunen parte da Puska Biltzea, garai bateko ohituraren oinarriturikoa. Zer nolako giroa antzematen duzu aurtengora begira? Lagun asko elkartuko al zarete?

Gabonak igaro eta gero Puska Biltzea martxan jartzeko elkartzen gara. Inauteri giroa antzematen hasten da eta taldekideon artean giroa berotzen ari dela nabari dugu. Pozik, gogotsu ekingo diogu aurtengoari ere. Txistulariak eta trikitilariak lagun hartuta, hoguei lagunetik gora elkartuko gara.

Zer egingo duzue ibilbidean zehar? Zertan datza Puska Biltzea?

Aurten Sorabillan ibiltzea egokitu zaigu eta baserriz-baserri ibiliko gara. Axeri-Dantzaren baitako jolas bana eskainiko dugu, eta baserrian bertan zein jolas egin erabakitzen dugu. Sueltoan ere dantza egin eta baserritarrek hizketalditxo egiteko aukera baliatzen dugu. Eta baita mokadutxo bat jan ere. Puska Biltzea izena hortik dator: oilaskoa dela, txorixoa dela, arraultzak direla...

Agurtu aurretik koplak batzuk abestu ohi ditugu, hurrengo urtean beste auzo batera goazela iragarritz.



Izaskun Beraza Leizotz aldeko Ameztia bordako herrikideekin, iazko Puska Biltzean Ixabel Santa Cruzekin eta Esther Arizmendirekin. AIURRI

Dagoeneko errotuta dagoela esan daiteke? Beraz, moztorroei dago-kionez, Andoainen finkatzen ari direlako Puska Biltzea, Kaldereroak eta Inauteriak hurrenkera horretan.

Herrian ezaguna egiten ari da, ez dakit zenbateraino dagoen errotuta. Inauterien etorrera iragartzen duen lehen ekitaldia

da. Moztorroetako sasoia hortxe hasten dela esan daiteke, bai.

Otsailaren 4koa bada San Juan jaiei begirako lehen hitzordu modukoa?

San Juan jaietako hitzorduak beste irismen bat du Andoain herrian, handiagoa. Herriko jaietan eta plazan egiten delako, ziurrenik. Inauterietakoa xu-

meagoa da, beste kutsu bateko ospakizun bat da. Bada Puska Biltzean eroso aritzen denik, eta San Juan jaietako plaza handiari beldur modukoa diona.

Neguko irteera, noski, motorrak berotzen hasteko eta San Juan jaiei lanean hasteko pizgarri ona da.

Lortu da Axeri Dantzaren belaunaldi ezberdinak uztartzea. Hori oso pozgarria da zuentzat ezta?

Aurretik ere adierazi dugu Axeri Dantzak kultur transmisioari dagokionez garrantzia handia duela. Herrigintza da, belaunaldi ezberdinak uztartu eta harremanetan jartzeko aukera eskaintzen duelako.

Gazteak eta ez hain gazteak, belaunaldi ezberdinak elkartzen gara. Aita-semeak, ama alabak modu naturalean eta jarduera alai eta parte hartzailean elkartzen gara. Ez da ezer, inor behar-tzen. Gozagarria, gustagarria delako ekiten diogu Axeri Dantzari.

Sorabilla aldean ibiliko zarete, aurten. Eta kalean ikusteko aukera izango zaituztegu gainerakook? Hala bada zein ordutan?

08:00etan abiatuko gara Irunberri kultur elkartetik Goiz osoan zehar baserriz baserri ibiliko gara eta espero dugu 13:30-14:00ak aldera Sorabilla auzoan bertan egotea. Frontoian emanaldi handixeagoa eskainiko dugu eta herrikide guztiak hara hurbiltzera gonbidatuta daude.

"SORABILLAKO FRONTOIAN EMANALDIA ESKAINIKO DUGU 13:30AK ALDERA"



Mahai bana jarriko dute larunbatean Mimendin eta Merkatu plazan. AIURRI

Sinadura bilketari hasiera eman diote

C2ak kaltetutakoen plataformak adierazi duenez, 500 lortu dituzte lehen 48 ordutan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo hainbat merkatalgusetan jasotzen hasi dira herri-tarren sinadurak. Plataformako kideak datorren otsailaren 4an, larunbatearekin, mahai bana jarriko dute Mimendin eta Merkatu plaza inguruan. 10:30etatik aurrera sinatu ahal izango da argitara eman duten dekalogoak. Bestalde, otsailaren 15a baino lehen ezohiko udalbatza deitze-ko eskaera erregistratu dute.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Hirigintza sailean obra-lizentziak ematerakoan dagoen kolapsoa jasanezina da

Gaur egun, obra lizentzia bat lortzeko itxaron behar den epe luzea ikusirik, Andoaingo biztanleriaren haserrearekin bat gatoz eta erabat ulertzen dugu. Berritu beharreko etxebizitzak jabeek, igogailua jarri nahi duten edo fatxada bat berritu nahi duten bizilagunen komunitateek, hilabeteak itxaron behar dituzte

lizentzia bat lortzeko. Gauza bera gertatzen zaie eraikuntza enpresei, beren eskaerei erantzuteko. Izapide horietako asko edozein udaletan 15 egunen buruan erantzuten dira, eta Andoainen 6 hilabete baino gehiago itxaron behar da.

Gertatutakoaren erantzukizuna udal-gobernuarena baino ez da. Egoera

horretara iristen utzi da, irtenbiderik eman gabe. Gobernuak ez dago izan dituzten arazoak guri esateko; pandemia nonahi izan da, eta plegu hutsak ere bai. Hartu dituzten erabakiak berandu hartu dira eta ez dira nahikoak.

Horretaz gain, Andoaingo bizilagunen kezak entzuten ari

direnak hirigintza saileko langileak dira, jasaten duten blokeoan inolako erantzukizunik ez dutenean.

Udal gobernuari eskatzen diogu erabateko lehentasuna eman diezaiola kolapso honekin amaitzeari, eta legealdia amaitu aurretik konponbide azkar eta eraginkor bat eman dezala.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Santa Yageda! Yageda!

Datorren larunbatean, otsailaren 4an, arratsaldeko seietan emango zaio hasiera Santa Ageda bezperako kantu saioari, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren egoitza azpitik, Dr. Huizi kaleko 15. zenbakian, baina Ondarreta kalera jaisten den aldapatik.

Hortik aurrera, santa-eskean ibiliko diren herritarrak gutxi-gorabehera 21 geldialdi egingo dituzte kantari aritzeko, honako ibilbidea eginez: 1.- Dr. Huizi kalea, 15 (18:00). 2.- Ondarreta kalea (Liburutegia). 3.- Basteroko plazatxo. 4.- Kale Nagusia: Urkiola taberna. 5.- Kale Nagusia: Li dendaren parean. 6.- Kale Nagusia: Irunberri/Santakrutz parean. 7.- Kale Nagusia: Amantegi/Zubiondo parean. 8.- Zumea kalea: Gaztelutxo. 9.- Zumea-Kale Berria bidegurutzea (Guipuzcoano). 10.- Zumea



2018ko edizioko argazkia. AIURRI

kalea: Danenako plazatxo. 11.-Zumea kalea: Txalaka/Nerea. 12.- Zumea: Muga inguruan. 13.- Aingurasutegi atzealdea. 14.- Kale Berria: Kurpil atzean. 15.- Juan Bautista Erro: Etxeberria Hiru. 16.- Kale Nagusia: Dr. Huizi parean. 17.- Goikoplaza: Anaiak taberna. 18.- Goikoplaza: Larramendi. 19.- Goikoplaza: Elizondo

taberna (20:20). 20.- Kaletxiki: Buruntza parean. 21.- Ontza Elkartea.

Ateri egon edo kazkabarra egin Agate deunaren erronda kalean izango da, hutsik egin gabe. Ibilbidean, zehazki Goikoplazan, errondak omen egingo dio Arantxa Iartzari, ia 30 urtetan santa-eskean partaide eta sustatzaile izan zuenari.

AIURRITIK

AIURRI ANDOAIN, URNIETA

Egunean Behin 11D, sari eta guzti



Ezkide Oteiza izan zen 8D denboraldiko lehen saritua. AIURRI


Urtarrilaren 30ean hasi eta zortzi astez, lehiaketa ezagunaren denboraldi berria martxan da. Eta, noski, "Aiurri" taldean parte hartzeak saria lortzeko aukera dakar. Parte hartzaileen artean, astean, sari bat zozkatuko da. 11D denboraldian, Arrutiko pasta-kaxa goxoa. Sariduna, nola bestela, "Aiurri" taldeko partaideetako bat izango da. Ez du zertan irabazlea izan. "Onena"

ez, baizik eta hasieratik "partehartzailea" saritzea erabaki duelako erredakzio batzordeak. Aiurrik tokiko produktuen aldeko apustua egin nahi du. Aspillako saskia edota eskualdeko sagardogileen botilak. Oraingoan sari-emailea Arruti gozotegia izango da. "Aiurri" taldean azken denboraldian 500etik gora maiztasunez aritu ziren jolasean.

Txotx 2023

GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean
www.aiurri.eus



Okm:
batzen gaituen
distantzia



Pantailak Euskaraz herri ekimeneko kide dira Ioritz Gonzalez eta Xabi Alkiza. AIURRI

Non da euskara pantailan?

Pantailak Euskaraz herri ekimena izan zen haste hasieran Urnietan, herriko AEKren Zilegi Eskola proiektuaren eskutik: egitasmoaren nondik norakoak azaldu zituzten bertako kide diren Ioritz Gonzalezek eta Xabi Alkizak

Alba Cabrera jauregi URNIETA

Zenbat ordu igarotzen dituzu pantailari begira, irakurle? Edukier guztiak zein hizkuntzatan jasotzen dituzu? Galdera horien aurrean dagoen erantzunak ze hausnartua eman zien orain urte batzuk Xabi Alkiza bikoiztailari, Ioritz Gonzalez irakasleari, eta baita beste hainbat norbanako zein eragileren ere. Bada, amu horri tira egin eta Pantailak Euskaraz herri ekimena ipini zuten martxan, 2021eko ekainean, pantailek egunerokoan duten pisuari, eta horietan euskarak duen presentzia urriari aurre egiteko. Hala, talde txikien batura da mugimendua: Disney Plus Euskaraz, Netflix Euskaraz, Game Erauntsia, Zinemak Euskaraz, Tinko Euskara elkarte eta Bieuse Bikoiztaila Euskaldunen Elkartea. Euskal Herri osora zabaltzeko dute beren aldarrikapena, baita Urnietara ere: Sarobera hurre-ratu ziren aipatutako bi kideak

hitzaldia ematera joan den astelehenean, AEKren eskutik, Zilegi Eskolaren ekimenez.

Euskarak pantailetan duen presentziari buruzko datuak jasotzen ditu ekimenak. Hala, zenbakiei erreparatuta, Gonzalezek dio euskarazko edukien kopurua praktikoki ez dela existitzen eta militantzia batera mugatzen dela, alegia, "euskaraz zerbait ikusi nahi duenak topatu egin behar du, beren-beregi, eta, askotan, kosta egiten zaio". Irakasle gisa egiten du lan hizlariak eta, gazteen artean, oso modu nabarmenean ikusten du joera hori: "Sistematikoki, hizkuntza askotako eduki-bonbardaketa daukate, baina, euskaraz, zehatz-mehatz, oso gutxi".

Horiek horrela, kexu agertu zen Pantailak Euskaraz bere hastapenetan, eta auzia mahai-gaineratu zuen euskalgintzaren bueltan, babesa eskatzeko, Alkizaren ustez, euskal komunitateak berak duela urte asko

borroka alboratu zuelako eta, orain gutxi arte, ez diolako berriro heldu: "Euskarak bere tokia izan dezala aldarrikatzen dugu. Gutxieneko aukera zabalagoa dadila, denetarikoa, euskaraz, pantailetan". Finean, euskarak, egun, ez daukana edukia ezala galdegiten dute: "Orain ez dauka maila altuko fikziorik, euskaraz animea eman-go duen telebistarik, ez eta erregulatuko duen legerik ere".

Bikoizlea da Alkiza eta barrutik ezagutzen du egoera: haur txikiei begirako edukiak sortu dira, baina, ikusle horiek sei urte betetzean, "telebistako mandoa hartzeko gaitasuna dutenean, ez dituzte kontsumitzen lehendik ikusitako edukiak". Hortxe dago gakoa plataformako kidearen aburuz, bi hamar-kada luzetan zabaldu den hutsunea: esaterako, 1994 urtean hasi zen euskaraz emititzen Doraemon edo 1969an grabatu zen Pippi kalzaluzeren lehen atala. Bada,

gaur gaurkoz, oraindik, emititzen jarraitzen dutela dio bikoizleak.

Ildo berari jarraiki, aspalditik, ETB1n aurrean, ETB2k lehen-tasuna duela adierazi zuen Gonzalezek hitzaldian. Halaber, irakasleak dio ganorazko streaming plataforma baten behar-rean dagoela euskal komunitatea, eta, bide batez, euskarri nagusietan euskararen presentzia lege-bermatu eta areagotzea nahi du herri ekimenak. Hasieran, bai-ze-koa zirudien arren, ez zuen guztiz asetu eskaera Espainiako Gobernuak. Espainiako Estatu-ko streaming plataformetan irizpide hori martxan ipintzeko hitza eman zen, baina "streaming plataforma indartsu bakarra" Movistar dela uste du Gonzalezek. "Benetan potentziala dutenak (Netflix, HBO, Amazon...) kanpo gelditu ziren", nabarmendu zuen hitzaldian, "zenbait eduki bikoiztuta sartzen hasi dira batzuk, baina nor bere ekimenez". Legeari eutsita, Alkizak azaldu zuen TVEk hamabi urte arteko pertsonen zuzendutako eduki guztiak euskaraz eskaini behar dituela, eta kate pribatu-berri, gutxieneko ordu-kopuru bat zehaztu zaiela. Horrela, Iparraldeari begira, Frantziako telebista publikoan, euskarazko edukia egotea ere nahi du herri ekimenak.

Gauza bera gertatzen da Ikus-entzunezkoen Legearekin, edota Zinema Legearekin: kudea-keta horiek errazak direlakoan da bikoizlea, "baina horiek gauzatzeko borondatea egon behar da". Parlamentuan, adostasuna erakutsi da euskararen presentziak handiagoa behar duela aldarrikatzean, "baina inork ez du legerik egiten, interesak sartzen direlako jokoan". Bestalde, bidio-jokoetan edo sortzaile plataformetan, euskararen presentzia sustatzea nahi du Pantailak Euskaraz herri ekimenak. Hala, horietan zein bestelako pantailetan zabaltzen diren euskarazko edukiak kontrolatuko eta erabakiko dituen kontseilu baten beharra sumatu du talde eragileak.

Atea berria irekita

Guztia ez da iluna, oster, Pantailak Euskaraz lanean hasi denetik hoherantz egin baitute zenbait datuk, hala nola: 2021etik 2022ra, Netflixek 3tik 40ra igo ditu euskarazko edukiak, Amazonek 2tik 44ra... Ondo baino

Pantailak euskaraz, manifestua

1. Euskarazko ikus-entzunezkoen sektoreko finantzaketa publikoa argitzea eta handitzea;
2. Euskal Irrati Telebista (EITB) indartzea eta hau euskararen normalizaziorako tresna bihurtzea.
3. Euskarazko streaming plataforma bat sortzea.
4. Streaming plataforma nagusietan euskararen presentzia bermatu eta areagotzea.
5. Zinemaren Lege propioak sortzea.
6. Bideo-jokoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.
7. Sortzaile plataformetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.
8. Ikus-entzunezkoen Lege propioak sortzea.
9. Lurralde-administrazio bakoitzean ikus-entzunezkoen Kontseilu propioa sortzea.
10. Espainiar eta Frantziar kate publikoek edukiak euskaraz eskaintzea.

hobeto laburtu zuen Alkizak zertan datzan ekoizpen-kontsumoaren harremana: "Hiztun kopurua kontuan hartuta, euskaldunen ikusle multzoa interesekoa litzateke enpresentzat, baldin eta multzo horrek ez balitu edukiak beste hizkuntzetan kontsumituko". Horrenbestez, sorgin-gurpila irauli nahi du herri ekimenak: euskalgintzako eragileekin saretuta daude, 35.000 sinadura eskuratu dituzte orain artean, eta gehiago izateko bidean dira. Arrakatsua izan zen Euskaraldia aitzaki antolatutako Pantailaldia, Tinkok eta UEMAk euskarazko zinema-aretoak sustatzeko proba pilotu bat abiatu dute, eta martxan dira euskarazko edukiak digitalki bilatzeko erremintak: zernonikusi.eus eta euskalecondings.eus. Ate berria ireki du, jada, Pantailak Euskaraz herri ekimenak... zZeren zain zaude, irakurle?



Aurreko larunbat eguerdian egin zuten aurkezpen ekitaldia. AIURRI

“Bidean bat” egitasmoaren aurkezpena

Aurkezpen-ekitaldia egin zuten Urnietako Salestarrek nahiz Presentacion de Mariak, orain lau urte hasitako bateratze-prozesuaren amaiera plazaratzeko. Salestarrek Magale Urnieta izena hartuko dute bi ikastetxeek, bat eginda, aurrerantzean

Erredakzioa URNIETA

Bi ikastetxeen uztartze-prozesuaren amaierara iritsi da bidea, eta emaitzaren aurkezpena egin zuten, iragan larunbatean, goizeko 11:30ean, Salestarren erai-kinen ekitaldi-aretoan: "Sales-tarrak Magale Urnieta" izena-renarekin bateratu dira eta titularitate Salestarren esku geratu da. Bertan izan ziren, besteak beste, Nekane Kortaxarena Presentacion de Maria ikastetxeko zuzendaria, Jose Luis Pinedo Salestarren zuzendaria, Eider Mendoza Gipuzkoa-ko Foru Aldundiko Gobernantza diputatua, Jorge Segurado Urnietako alkatea zein oposizioko buruak, Ainara de Miguel (EH Bildu) eta Herme Gonzalez (PSE-EE).

Eneko Rosko DBHko ikasleak nahiz Jon Elorriaga irakasleak gidatu zuten hitzordua, eta Jone Izagirre dantzariaren aurrekuarekin eman zioten hasiera ekitaldiari. Hari horri tiraka, ez zen musika falta izan aurkez-

penean, hainbat pieza interpretatu baitzituzten, pianoaren zein biolinaren laguntzaz, egun, ikasle direnek, baita, iraganean, ikastetxetik igarotako kideek ere. Jose Luis Pinedo Salestarren zuzendaria izan zen, ordezkaien artean, hitza hartzen lehena: "Gaur, aurrerapausoa eman dugu 2017. urtean hasitako ibilbidean: askotariko bilerak izan ditugu bi ikastetxeek, gure hezkuntza-proiektuak behar bezala hezur haragitzeko eta gure proiektu berria aurkezteko: Salestarrek Magale Urnieta". Urrats egokiak eman direlakoan da Pinedo, beti ere, haren hitzetan, norabide aldaketa honetan, esentzia mantenduta: familia-giroa, gertutasuna, solidaritatea eta elkarlana.

**ESENTZIARI EUTSI
DIOTE: FAMILIA-
GIROA, GERTUTASUNA,
SOLIDARITATEA ETA
ELKARLANA**

Ametsen lorategia

Bide batez, labetik berriki ateratako proiektu bat ezagutzera emateko ere baliatu zuten ekitaldia, ikus-entzunezko baten bitartez: "Ametsen lorategia". Bertako hezkuntza komunitateak ikasleekin zein familiekin batera ondutako proposamena da, HH-LH ikastetxearen jolastokiari bestelako planteamendua emateko. Bi ideia nagusi azpimarratu zituen aurkezpenean Nekane Kortaxarena Presentacion de Maria ikastetxeko zuzendariak: batetik, ikasleek proiektuan izan duten eskuartzea; ekimenaren hasieran, lanketa egin zuten, inguratzen zuten jolastokiaz hausnartzeko. Jarraian, etorkizunari begira, zein nolako patioa izan nahiko luketen pentsatu dute, adinaren arabera premiazko identifikatzearekin batera, "hezkidetzan eta inklusio ikuspegi batetik". Bestetik, auzolana izan zuen hizpide zuzendariak: "Hezkuntza-komunitate osoa elkarlanean aritu da".



Gorka Azkarate eta Arantazu Miner irakasleak eta bertso saioaren antolatzaileak, Iker Ormazabal eta Beñat Mujika bertsolariak. AIURRI

"Mobila kendu ta bi asteen ez diogu itzuliko"

Ikasleen arreta bereganatu zuten Ormazabal eta Mujika bertsolariek, On Bosko asteen

Xabier Lasa URNIETA

Iker Ormazabal eta Beñat Mujika bertsolariek saio bikoitza egin zuten urtarrilaren 27an, Salesiarren ikastetxeko ikasleentzat. "Bertsoen euripean" izenburupean aritu ziren biak. Gorka Azkarate gai-jartzailearen agindupean jardun zuten, eta ikasleen interesa piztu zuten. On Bosko astearen barruan ikastetxean antolatu zuten egitarauaren barruan antolatu zuten ekitaldi bikoitza. Illarregi iragarrita bazegoen ere, Beñat Mujika aritu zen Iker Ormazabalekin batera.

Bi ikasle, mugikorrik gabe klasean

Besteak beste, honako gaia jarri zien Azkaratek bi bertsolariei: "DBHko bi ikasle zarete. Ez daukazue baimenduta klasean mugikorra erabiltzea, eta hor non ikusi duzuen irakaslea mugikorra atera eta hasi dela jolasen".

Beñat Mujika:

Mugikorrakin gustura gera biok edonoiz aritzen. Baino orain kaxan utzi degu ta ezin jardun erabiltzen. Irakasleek badute nahiko pagotxa fama ta izen. Eurek egin nahi ez duten hori beste guztiei agintzen (bis)

Iker Ormazabal:

Horrelakorik pasako zenik nik ez nuen uste bela, zeren mobilak guk hartu ta entzun beharra epela.

Eta oraingoan mobila berak erabili du horrela, ta baietz esan ordua begiratzeko soilik dela (bis).

Beñat Mujika:

Ordua edo larrialdia bada aitzakia zerrenda. Berarengana joan gaitezen eta zerbait esan, benga! Jolas bat badauka hor irekia ta irakaslean prenda. Suwbay Surferren jolasten dago eta bi segundun hiltzen da (bis).

Iker Ormazabal:

Eta gainera joku horretan gastatu du hainbat diru. Eta gu hemen mugikor gabe beti arauen gatibu. Gainera ez da bera bakarra gure araua birrindu. Gure bertsoko irakasleak ere berdina egin du (bis)

Beñat Mujika:

Nahiz ferekatu hemen mobila guztiek dute begiko. Ta matekoak gaur egin duna gogoan dugu betiko. Irakasle ta ikasle papera ez al degu irauliko? Mobila kendu ta bi asteen ez diogu itzuliko (bis).

Iker Ormazabal:

Egia esan egingo nuke esan dezuna gustura. Baina horrela ez det sekula matematika aproba. Eta horrela dela kontua jada badegu denbora. Len horrela zan, orain hola da ta gero hola izango da (bis).



Aurreko ostiraleko elkarretaratzea, Zaldundegi plazan. KIROLDEGIKO LANGILEAK

Kiroldegiko langileen elkarretaratzea

Ia hilabete egingo dute greba mugagabea. Aurreko ostiralean elkarretaratzea egin zuten Zaldundegi plazan

Erredakzioa URNIETA

Egoerak bere horretan dirauela ikusita, elkarretaratzea egin zuten kiroldegiko langileek joan den ostiralean, hilaren 27an: arratsaldeko 19:00tan bildu ziren Zaldundegi plazan, lan-hitzarmen duina aldarrikatzeko. Herritarren babesak dutela ikusi zen, beste behin, hemeretzigarren greba eguna zuten arratsalde horretan. Borroka “luzea eta gogorra” izaten ari dela aitortu zuten, hamarkada batean “egin ez dena” orain egiten ari direla, alegia: “Epaitegira joanda, lortu dugu aintzinasunak kobratzea eta,

greba bidez, lortuko dugu lan hitzarmen bat eguneratutako soldata eta baldintzekin”. Bide batez, barkamena eskatu zieten herritarrei, eragozpenengatik, eta, baita, “bihotz-bihotzez”, beren esker ona adierazi ere, babesagatik.


Ia hilabete igaro da lanaldi mugagabea egitea erabaki zutenetik. Urtarrilaren 13an, kalera atera ziren, beren egoeraren berri eman eta salatzeak. Dena dela, ez da oraingo kontua aldarrikapena, izan ere, joan den urteko udazken partean hasi zituzten lanuzteak, egun solteekin.



AIURRI

Santa Eskean, 12:00tan hasita

Azken ordukoa du Santa Ageda bezperako kantu errondak: orduz aldatu dute hitzordu musikatua. Eguerdiko 12:00tan abiatuko dira, eta ez arratsaldean. Usadioak aginduta, otsailaren 4an, kalez kalez, atariz atari ariko da Kantazaun taldea abesten. San Juan plazatik abiatuko dira, eta partaideei baserritarrez jantzita joateko eskatu die antolatzaile taldeak.



On Biziren eta Udalaren ekimena da.

Opari-txartelak erabilgarri, otsailaren 12ra arte

Amaitzeaz da Gabonetan tokiko komertzioa sustatzeko abian jarritako kanpaina

Erredakzioa URNIETA

Bukaerara iritsi da Gabonetan On Bizik martxan jarritako opari-txekeen kanpaina: hilaren 12ra arte izango dute herritarrek 150 euroko txartelak erabiltzeko aukera, derrigorrez, bakoitzari dagokion establezimenduan. Hala, egun horretarik aurrera, ez dute inolako baliorik izango txekeek.

Gabonen atarian, tokian tokiko merkataritza sustatzeko, opari-txekeen kanpaina abiarazi zuen On Bizik herriko merkatarien elkarteak, Urnietako Udalarekin elkarlanean.

Tokikotasunari garrantzia emateko ekimena

Harrera ona izan du ekimenak herrian eta urnietarrak pozik agertu dira proposamenarekin. Askotariko dendetan kontsumitzeko aukera izan dute herritarrek, orain arte, 0 Km oinarri: zaintza, kirola, osasuna, estetika, elikadura, ostalaritza...

Horrela, tokikotasunari garrantzia eman zaio ekimen honen bidez, urnietarrek beren herrian dituzten zerbitzuei zukua atera diezaioten, etxekoa sustatu zein babesteko asmoz. Bultzada eta elkartasun keinu bat komertzio txikiei.



ENBAren batzarra, aurreko asteburuan. ENBA

Burujabetzaren aldeko aldarrikapena

Urnietan bildu zen ENBA, lehen sektoreari eman beharreko babesak eta garrantzia nabarmentzeko

Erredakzioa URNIETA

XXXI. batzarra egin zuen, hilaren 29 goizean, ENBA nekazal sindikatuak Salestarren ikastetxean. Bertan, baserritarrak eta sektoreko eragileak bildu ziren, baita herri agintariak ere, besteak beste, Jorge Segurado Urnietako alkatea eta Xabier Arruti Nekazaritzako eta Lurralde Oreekako foru zuzendaria.

Hainbaten artean, ENBAko presidentea den Iñaki Goenaga urnietarrak hartu zuen hitza, Gipuzkoak elikagai ekoizpen txikirik gabe gelditzeko duen arriskua nabarmentzeko: “Gipuzkoak gutxieneko burujabea izan nahi badu, ezinbestekoa da, alderdikieretatik haratago, herri akordioa lortzea”. Hala, lehen sektorea erdigunean ipintzeko beharra dagoelakoan da presidentea, bai, ganoraz, elikagaiez hornitzeko, baita natura zaintzeko zein babesteko.

Hari horri tiraka, elikagai katearen barnean, “ekoizleen ahalduntzea” lantzea ezinbestekotzat jo du ENBAk. Sektorearen autonomia lortzeko bidean, elkartearen esanetan, nekazal lurren babesaren garrantzia gailendu egin behar da energia berriztagarriak nahiz beste gainerako proiektuen sustapenen aurrean. Horrela, berretsi egin zuten Urrestilako eguzki plaken proiektua gauzatzeko eman den udal tramitazio urbanistikoaen aurka jarritako helegitea, “balio handiko nekazal lurrentzat, Eusko Jaurlaritzaren PTS agroforestalean aurreikusten den babesak ez zaielako eman”.

Azkenik, abeltzaintzan ipini zuten begirada: batetik, jarduerak estentsiboari inportantzia emateko eta, bestetik, herri mendietan arreta jartzeko, mehatxu den otsoa gehiago hedatu ez dadin.



Urnietako
udala



Ianire Senperena urnietarra. AIURRI

"Talka handia izan da, baina asko ikasi dut Peruko egonaldian"

IANIRE SENPERENA IRAKASLEA

Erasmus ikasketak egitetik bueltatu berri da Ianire Senperena urnietarra (24 urte). Liman egin ditu, Peruko hiriburuan, lau hilabetez

Andoni Urbistondo URNIETA

Bertako jendartearen jarrera zenbaitek harritu dute, emakumeenak batez ere, eta zuku handia atera dio Hego Amerikako bidaiari. Lur hartzen, egokitzen ari da oraindik Ianire Euskal Herrian, bi aste eskas bakarrik pasa baitira Perutik bueltatu zela.

Erasmus egiteko hainbat toki entzunak nituen munduan barrena, baina Peru ez. Nolatan aukeratu zenuen Hego Amerikako herrialde hura?

16 urte nituela boluntario joateko asmoa neukala esan nien gurasoei. Cusco hirira, hain zuzen ere, eta gurasoek ezezko biribila eman zidaten. Orain 23 urterekin bidaiatu dut, eta ulertzen dut gurasoen orduko era-

"GORPUTZ-HEZIKETA IKASI DUT ETA GARBI NEUKAN PERURA JOAN NAHI NUELA"

bakia. Emakume bat, Perun hara eta hona, bakarrik...

Nolatan Limara, Peruko hiriburura? Irakasletzako azken ikasturtean zuk landutako espezialitateak eskaintzen dituen unibertsitate-terren batera joan behar duzu. Nik gorputz-heziketa egin dut, eta Brasil, Argentina eta Peru ziren aukerak. Garbi neukan Perura joan nahi nuela, nota onak ditut eta hara joan nintzen. **Noiz?**

Uztailaren 11 edo 12an hartu nuen hegaldia.

Diru-laguntzarik jaso zenuen?

Behin han plaza esleituta ematen dute. Eusko Jaurlaritzak han pasatzen duzun hileko 300 bat euro ematen ditu, eta Espainiako Gobernuak 500 euroko ordainketa bakarra. 1.700 bat euro denera. Ez du askorako ematen.

Limak ofizialki 13 milioi biztanle ditu, baina 17 dituela diote hainbat iturrik. Zer moduz hiriburu erraldoi hartan?

Ondo. Miraflores auzoan egon naiz bizitzen, Limako auzo aberatsa. Nire unibertsitatea Los Olivos distrituan dago, auzo konplikatu samarra. David Segurado urnietarra Liman bizi da aspaldi, eta hark, etxebizitza Miraflores Sur-en hartzeko aholkatu zidan, ahal bazen Metropolitan izeneko autobus lineatik gertu, distantzia luzeak azkar samar egiten dituelako. Miraflores oso turistikoa da, eta poliziak oso zainduta dauka. Ez dut arriskurik batere sentitu, baina nondik nora mugitzen zaren adi ibili behar duzu, erratzen bazara arriskua berehala sumatzen duzulako.

Zer moduz klaseak?

Hainbestean, on-line izan zirelako. Ez nuen unibertsitatearaino mugitu behar, baina 4-5 orduko klaseak jarraian ordenagailu batetik, ikasle berdinekin... oso nekosoa da. Perun klasean dauden ikasleen %95 lanean aritzen da ikasten duen bitartean, sakelakoarekin, eta askok ez zioten nire galderei erantzun ere egiten. Erritmoa ere hemengo baino askoz lasaiagoa daukate berez, eta balantzea, arlo horretan, txarra izan da. Nahia-go nuen autobusean egunero bi orduko bidaia egitea, klaseak aurrez aurre emateko aukera izan banu.

Unibertsitatean egon zinen?

Bai, hirutan. Cesar Vallejo zentroa oasi bat da, oso berria. Eraikin gris eta marroiez inguratua dago, baina unibertsitatea bera dotorea da. Unibertsitateko hesia pasatzen duzu, eta beste mundu batean sartzea bezalakoa da. Zentro pribatua da, baina Perun heziketa duin bat jaso

"UNIBERTSITATEKO HESIA PASA ETA BESTE MUNDU BATEAN SARTZEA BEZALAKOA DA"

nahi baduzu ordaindu egin behar da, sare publikoan irakasleek jasotzen dituzten soldatak oso apalak direlako. Dirua daukatenez eskola pribatuetara bidaltzen dituzte seme-alabak.

Etxean sare publiko aberatsa ezagutu duzu, eta han dena pribatua...

Bai, eta horiek transmititzen dituzten balioak ere oso ezberdinak. Kristautasuna oso presente dago eskola barruan. Nire pentsamoldea eta ikasle hainbatena oso ezberdina da, eta txoke pare bat izan ditut. Abortuaren inguruko lan batekin, adibidez. Antzerki bat egin genuen, abortuaren inguruan, eta denek oso garbi azaldu zuten kontra zeudela. Ni, aldiz, alde, eta ez zen erraza izan. Galdetu zidaten, ea abortuaren aldekoa ote nintzen, eta nik garbi esan nien baietz. Asaldatu ziren apur bat. Une harekin hausnartu nuen apur bat, eta jabetu nintzen normala dela abortuaren aurkakoak izatea, 22 urterekin ikasleen erdia ama zelako. Ez daukate sexu-heziketarik, eta oso gizarte patriarkala da. Gizonek dute agintemakila, eta gizonek emazteekin fidelitasunik ez izatea onartua dago. Emazteak umeren bat duenean etxean geratu behar du zainketan, eta gizonak nahi duena egin dezake. Hori da pentsamendua. Herriko agintari gorena emakume bat izateak sekulako harrabotsa sortu du. Dina Boluarte presidente izateak kritika asko sortzen ditu gizonezkoen artean, baina baita emakumezkoen artean ere. Diotenez, ez omen dago presidentea izateko prestatua, emakumea delako. Klasean entzun dut, emakume batek ezin duela presidentea izan.

Eta zuk bestelako pentsamoldea azaltzen zenienean, ze jarrera erakusten zuten?

Entzuten zuten, baina oso gutxi dira aldagetaren alde borrokatzeko prest daudenak. Ulertzen zuten esaten nuena, eta arrazoia eman, baina gero hori indarrean jartzen saiatzeko borondate askorik ez nuen sumatu. Diskurtsoa ezagutzen dute, baina jendarteak ere ez die laguntzen. Perun emakumea bazara ez zara ezer. Bere bidea egin nahi duen emakume gazte batek sekulako trabak topatuko ditu Perun. Ahalduntzeko komeria asko dituzte, eta beste norbaiten mende bukatzen dute ia beti, nor-

malean gizonen mende. Hara nolatan joan ote nintzen galdezen zidaten, ea beraiek Espainiara etor zitezkeen. Nik ahal zutela, noski, baina jendarteak ez die uzten, laguntzen, eta etxean ere ez.

Eskola girotik kanpo zer ikusi duzu?

Liman Miraflores, Barranco eta Centro hiri barrutietan ibili naiz. Hortik kanpo ez. Seguru samarrak diren gunek, zer ikusia dutenak. Besteetan miseria da nagusi.

Irakasleekin harremanik izan duzu?

Azken egunean ezagutu nituen, bueltatu aurretik. Halako agur ekitaldia egin zidaten, eta orduan ezagutu nituen. Aurrez aurre hirutan egin naiz ikasleekin, edo irakasleren batekin. Ludomotrizitate eskolak eman nituen, umeei nola jolastu behar den erakusten, eta han ere txokea izan nuen. Euskal Herrian mutilak eta neskak berdin jolasten dugu. Han nik mutilek bezala jolasten nuen, ez neskak bezala. Neskak ez ziren mugitzen, beldurtu egiten ziren.

Oso otzanak dira, esanekoak. Fisikoki ere oso ezberdinak dira, gurekin alderatuta. Txikiak. Nik 1.68 neurtzen dut, eta denei buru bateko aldea kentzen nien.

Peru ezagutzeko aukerarik izan duzu?

Bai, hasieran batez ere, ze berez klaseak hasi baino hiru aste lehenago joan nintzen, ahalik eta ondoen egokitze, baina ondoren hilabete atzeratu ziren eskolak. Bidaiatu egin nuen. Peru hegoaldeko Ica eta Cusco, Salcantay mendiko trekking-a, La Montaña de Siete Colores, Las Siete Lagunas... Beste hilabete geratzen zitzaidan eta Iquitos-era joan nintzen, Amazoniara. Ondoren Tumbes, Perun, Ekuadorren egun bat, Perura buelta Los Organos hirian... Urpekari titulua atera, bale eta dortoekin gozatu, eta azkenik Trujillo eta Huaraz-era joan nintzen, azken hori Andeen bihotzean. Huayhuash trekking-a egin nuen. Arazo batzuk izan nituen oinetako babekin, zauriekin, baina osatu ahal izan nuen mendiko oinetako batzuk lortuta.

Zenbat metroraino igo zara?

Santa Rosa lepoa, 5.200 metro. Ederra.

Perutik kanpo ibili zara?

Bai, urrian Boliviara, bisatua berritzeko. Uyuniko gatz-lauta-

da bisitatu genuen, Condoriri mendi inguruko gailur batzuk...

Peru iskanbila politiko handia sortu da azken hilabeteetan. Nola bizi izan duzu?

Liman ez da asko sumatu, Miraflores-en, behintzat. Tentsio uneak bizi izan ditut, ze azterketa garaia ziren, hemengo jendea bueltatzeko eskatzen, hango jendeak martxa egiteko eskatzen... David Seguradok asko lasaitu nau, berak hango jendartearen ondo ezagutzen duelako. Nik ez dut kale iskanbilarik ikusi. Etxera itzuli aurreko azken hiru asteetan Argentinara bidaiatzeko asmoa nuen. Egoera aztertzen aritu nintzen, Perutik etxera, edo Argentinara joan, bidaiak hartuta nituelako. Argentinan ibili naiz, Patagonia aldean: Bariloche, El Chalten, Calafate eta Ushuaia, Buenos Aires-en bukatzeko. Limara bueltan Gabonak David Seguradok eta bere familiarekin pasa ditut, eta handik etxera.

Orokorrean, beraz, gustura, Perura egindako bidaiarekin, ezta?

Oso gustura. Askok ikasi dut, nire kabuz moldatzen ikasi behar izan dut, erabakiak hartzen. Bakarrik bidaiatzeak hori ematen dizu. Ianire bat joan zen Urnietatik uztailera, eta beste bat bueltatu da hilabete batzuk geroago. Zu bakarrik zaude, onean eta txarrean; emakumea eta bidaiatzen, erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzu.

Perura bidaiatzeko gomendatuko zenuke?

Dudarik gabe. Jende jatorra da. Egoera lasaitu arte itxaron dezatela apur bat, baina laguntzeko prest daude, moldatzen dira eskatzen diotzunera. Beti baiezkoa ematen dute, galdetutakoaz arrastorik ez badute ere.

Eta orain zer?

Praktikak bukatu eta lan merkaturian murgildu. Lehen urteak zaila izaten dira irakasleontzako, eta akaso beste bidaiak potoloren bat egingo dut, Zeelanda Berrira edo. Gaztelania irakasleak estimutan omen dituzte han. Bizitzeko toki ederra dela esan didate bidaiatzen ezagutu ditudan hainbatek.

"NIRE KABUZ MOLDATZEN IKASI BEHAR IZAN DUT, ERABAKIAK HARTZEN"



"Ianire bat joan zen Urnietatik uztailera, eta beste bat bueltatu da hilabete batzuk geroago". IANIRESENPERENA



Akaso beste bidaiak potoloren bat egingo dut, Zeelanda Berrira edo. Gaztelania irakasleak estimutan omen dituzte han". IANIRESENPERENA



Imanol Bengoetxearen lau anai-arreba: Mari Carmen, Cosme, Iñaki eta Ana Mari. AIURRI

Ezkutuan aritu zen Andoaingo artista emankorra

Imanol Bengoetxea Goikoetxea (Andoain, 1962-Barasoain, 1994) artista autodidaktaren artelanak ikusgai daude Basteron, joan den ostiraletik. Bere anai-arrebak ez ezik Andoaingo familiako kide ugari bertaratu zen irekiera-ekitaldira



Bengoetxea Goikoetxea familiako Barasoaingo eta Andoaingo kide ugari bertaratu zen Basterora. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Bizirik zela, ez zuen erakusketa publikorik egin; alabaina, 32 urtetan, sormena izan zuen obsesio nagusi, eta etengabe bideratu zuen grina horretara, denetariko euskarriak erabiliz bere artelanak lantzeko.

1994an hil ostean, etxeko sotoetan gordeta egon diren zapihuniket gora obra berreskuratu eta argitan jarri ditu familiak, azken aldian. Horietatik 70 bat Basteron ikusgai daude orain, otsailaren 25a bitarte.

Artista barneraikoa, sentikorra eta misteriotsua izan zen Imanol Bengoetxe. Aparteko nortasun horren aztarna eman gaitzake berak idatzita utzi zuen honako pasarteak (Basteron irakurri daitekeena): *“Ez dut nire lana titulatzeko, beharrezkoa ez delako. Niretzat margotzen dut, ez beste batzuentzat edo komunikatzeko. Ez zait axola besteek ez banaute ulertzen, ezta iristen diren espkulazioak edo ondorioak ere. Nire lana nire erabilera pertsonala da, beste ondorio batzuk ateratzeko, nire intimitatea sortzeko, sinisten dudanarekin komunikatzeko, (...) ni ezagutzeko, auskultatzeko, gozatzeko. Nere burua atsegin izateko, desatsegin izateko, nirekin hitz egiteko, nirekin komunikatzeko”*.

Etxeko sotoan lo, urtetan

Gurasoek eta sei seme-alabek osatzen zuten Bengoetxea Goikoetxea familia Andoaingo Aingurasutegi kalean bizitu zen 60ko hamarkadan. Senideetan zaharrena zen Imanolek 13 urte zituela, denak Barasoain herriara (Orbaibar bailara, Nafarroa) joan ziren bizitzera.

Azken urteetan, bere bost anai-arrebak Barasoaingo sotoan sortu eta gero, gordeta utzi zuen ondare artistiko guztia berreskuratzen aritu dira. Lau senide agertu ziren Basteroko erakusketa irekierara: Mari Carmen, Cosme, Iñaki eta Ana Mari.

Lehenak eman zituen anai artistaren gaineko zertzeladak. *“Izaera sendokoa zen gure anaia, barnekoia, tematia, adimentsua... Familiaren ekonomiak ez zuen askorako ematen, eta igeltsero gisa jardun behar izan zuen bizimodua atera ahal izateko. Ezin izan zuen unibertsitatera joan, eta frustrazioa eragin zion horrek. Guk gogoan daukagunez, ahal zuen guztietan etxeko sotoan sartzen zen bere sormenari as-*

katasuna emateko; bunker gisakoa antolatutako zuen bertan. Etxean ere, berdin zitzaien non eta nola jardun; etxeko gela guztietako horma zuriak edo altzarrietako atea margotzen zituen. Museo txiki bat eraiki zuen gure etxean! Edozein euskarri erabiltzen zuen: loreontziak, botilak, pintura-poteak, lanparak... Igeltseroa zenez, obretatik lortzen zuen edozein material probesten zuen margoak egiteko”.

Bere artelanen berreskuratze prozesua zertan izan den aipatu zuen ondoren Mari Carmen Bengoetxeak: *“Ahalegin handiko egitasmoa izan da guretzat, baina merezi izan du. Bere anaiok ez gara adituak artean, eta halako batean, mundu horretan ezagutzen ditugun bi adiskideri etxeko sotoa hurreratzeko eskatu genien, balora zezaten zer zegoen bertan. Lur eta zur geratu ziren, benetako altxorra zegoela ziurtatu ziguten. Artelan batzuk erabat hondatuta zeuden, baina gainerakoak berreskuratzeari eta argitaratzeari ekin genion, anaiak merezi zuelakoan”*.

Artelanak, nortasunaren isla

Silvia Sadaba erakusketaren komisarioaren idatzi kritikotik honakoa nabarmendu daiteke: *“Nortasun artistiko berritzailea eta egonezina zuen Bengoetxeak, eta Andoaingo erakusketak bere unibertso espresionistarekin gozatzeko aukera ematen digu. Ez du ikuslerik epel utziko. Ezin izan zuen unibertsitate ikasketarik egin, eta autodidakta izan zen, arteari buruzko makina bat liburu irentsi zituen, eta ahal zuenetan Paris, New York edo Madrilera jo zuen hango museoak ikustera. Berak bere estiloa sortu zuen, propioa; deskribatzeko, esan daiteke figuratiboa, espresionista, materikoa eta sinbolikoa dela”*.

Basteron ikus daitezkeen obra ia guztietan egilearen nortasuna ondo itsatsita geratzen dela ziurtatzen du Sadabak: *“Bere obra osoa kurbatua da, trazu organikoekin, eta horrek agerian uzten digu bere pintzela bere inkontzientearekin, bere sentimenduekin, bere animo egoerarekin eta bere barne deabruen lotura hain zuzenaz. Keinua barnealdearen eta euskarriaren arteko lotura da, eta, beraz, pintzelkada bortitza, errailetakoa, dinamikoa eta energiazkoa da, bere nortasuna zen bezalakoa”*.



Kepa eta Diego Benitez, Rafael Benitez zapatariaren semeak dohaintzaren egunean, Burdina taldeko "Txanka" Arrutirekin batera. AIURRI

Benitez zapatariaren dohaintza Burdina taldeari

Burdina elkarteak ireki duen Gordelekua tresneria eta objektu zaharrez hornitzen ari da poliki-poliki, tarteka herritarrek eskura jarritako dohaintzei esker. Azken ekarpena, Rafael Benitez zapatariaren familiak emandako tresneria izan da

Xabier Lasa ANDOAIN

Burdina elkarteak ireki duen Gordelekua tresneria eta objektu zaharrez hornitzen ari da poliki-poliki, tarteka herritarrek eskura jarritako dohaintzei esker. Azkena, Rafael Benitez zapatariaren familiak emandako tresneria jaso du.

Rafael Benitez Anguas iazko ekainean zendu zen, 94 urterekin; 1982an jubilatatu zen arte, hamarkadetan, Andoainen zapatari estimatua izana zen. Orain, familiak bere lan-tresneria Gor-

delekuan uztea erabaki du, eta urtarriaren 18an, Kepa eta Diego semeek Burdina taldeko Txanka Arrutirekin egin zuten dohaintzaren gauzatzea.

Tresneria sortatik, aipa daitezke zenbaitzuk: abarka-ziria, eskuko-daratulua edo zulagailua, zapatariaren-Ingudea, larruki-gilearen tresneria berezia, bihurkina, abarka-eztena, aliketa edo errematxagailua. Horietatik bakar batzuek gaur egun oraindik ere zapatariek erabiltzen dituzte; gehienak, ordea, aspal-

dian bazterrean utzi ziren, merkatuan modernoagoak asmatu izanagatik.

Burdina elkarteak Benitez Orellana familiari eskerrak eman zizkion egindako dohaintzagatik. Aldi berean, agindu zion etorkizunean tresneria guztia txukun-txukun jarri eta Gordelekua erakusketara batzeaz gain, tresna bakoitzarekin dokumentazio lana burutuko duela. Ekitaldi berean, Arrutik gonbidapena luzatu zien herritarrei, sotoan edo ganbaran

gordeta eduki ditzaketen tresneria Burdinaren esku utz dezaten. "Gure arbasoen lanbide tradizionalak, bizimodua eta mentalitatea islatu dezakeen edozein erraminta, tramankulu edo agiri jasotzeko prest gaude. Ezinbestekoa iruditzen zaigulako, gizarte batek jakin dezan, bere aurrekoak zer izan diren, zer egiten zuten, zer pentsatzen zuten... Aurrera egiteko".

Rafael Benitez, herriko zapataria

Rafael Benitez Anguas iazko ekainaren 18an hil zen, 94 urte zituela. Quintana de la Serena herrian (Badajoz) jaio zen 1927an. Gaztetan, zapatariaren ofizioa ikasi zuen bere anaiekin batera, eta zapata-lantegi batean jardun zuen. 50eko hamarkadaren hondarrean, Extremaduran bizimodua atera ezinik, Maria Antonia Orellana bere emaztea eta biak Euskal Herrira migratu zuten. Anoetara lehenbizi, Andoainera ondoren. Bertan, hiru seme-alaba eduki zituzten: Kepa, Diego eta Maite.

Rafael Benitez tailer batean torlojuak egiten hasi zen lanean, baina agudo ohartu zen katean lan egitea ez zela berarentzat egina, eta burujabe izateko zapata konpontzaile beharko zuela izan. Halaxe, Kale Nagusiko Argiñanea etxeko azpian negozioa ireki zuen.

Trebea zen esku-lanetan, maisua zen zapatariaren ofizio tradizionalean, eta herritarrek ederki estimatzen zituen haren konponketak.

Alabaina, zenbait urteren poderioz, beheko kale horretan, euri jasekin eta Oria ibaia haztearekin batera Kale Nagusian eta Zumea kalean ohikoak izaten ziren uholdeek bakean uzten ez eta, Kale Berrira eramanez zapata-denda. Pozik instalatu zen lantoki berrian gizona, baina hara non, gutxira, 1983ko abuztuko uholde ikaragarria, Kale Berriraino zabaldu zela!

1992an jubilatatu zen arte fin-fin eduki zuen irekia Kale Berriko oinetako-denda.

BENITEZ ORELLANA FAMILIARI ESKERRAK EMAN ZIZKION BURDINAK EGINDAKO DOHANTZAGATIK



Rafael Benitez. BENITEZORELLANA

Egia eta justizia

Azken urtetan, frankismoak zapal dutako biktimen alde urtero Etxeberrietan egin ohi den ekitaldiaren hitzordua galtzen ez zuen horietakoa izan zen Benitez. Izan ere, 1936ko kolpe militarren osteko errepresioak latz jo zien Extremadurako herritar ugari, eta tartean, Rafael Benitezen anaia, Diego Antonio, desagerrarazi egin zuten. Rafael Benitezek *Ahozko Historia: oroimenean lokatutako historia* liburuan (Oroitzuz elkarte, 2006) adierazi zuenez, aita, herrian jasan zuen jazarpenagatik eta semearen galerak eragindako penagatik hil zen. Rafaellek beti eduki zuen bizirik anaiaren oroitzapena eta tinko aldarrikatu zuen harentzako egia eta justizia.



Rafael Benitez Loli Murillo bezeroarekin, Kale Nagusiko bere lehenbiziko negozioan.

BENITEZORELLANA

"Munduko errekorra egiteko gogor entrenatu beharko dut"

ISMAEL MATEO KIROLARIA

HYROX Kirolariak ezustekoak ematen jarraitzen du, Europako txapeldun bilakatuta. Egun, munduko errekorra egitea du xede



Ismael Mateo. EITB

Mikel Arberas HERNANI

Zer da Hyrox kirol diziplina?

Duela bost urte sortu zen, gutxi gorabehera. Exigentzia maila handiko kirol mota da. Lasterketa eta ariketak uztartzen ditu; hau da, zortzi kilometro lasterka eta zortzi ariketa egin behar dira. Kilometroko korrikaldiaren ostean egin behar da ariketa. Proben izenak nahiko arrotzak dira askorentzat, izan ere, ingeles jatorrikoak dira; besteak beste, SkiErg, Sled Push bi aldiz, Burpee Broad Jumps, Rowing, Farmers Carry, Sandbag Lunges eta Wall Ball. Agian, hobekiago ulertzeko, errazagoa egingo zai-zue Interneten begiratzea.

Duela gutxi, Europako Hyrox txapelketa irabazi zenuen, 50-54 urte bitarteko adin tartean. Lorpen handia da hori...

Lorpen interesgarria da, bai. Egia da ere, adin tarte horretan aurkari edo lehiakide gutxiago ditudala; hala ere, parte hartzaile gutxiago egon arren, fisikoki maila oso altukoak dira. Esaterako, estatu mailan nahiko erraz gailentzen ari naiz, baina European egoera aldatu eta zailtasunak areagotu egiten dira. Horrez gain, testuinguruan jartzearren, maila guztiak kontuan hartuko bagenu, 17. postuan sailkatuko nintzateke. Ez dago batere gaizki, jakinda gazte indartsu ugari datozela atzetik.

Esanak esan, kirol polita da honakoa. Neska-mutilek parte hartzen dute, maila edozein dela ere. Gainera, lehiaketak adin tarteka banatzen direnez, oreka mantendu ohi da lehiakideen artean.

Europa Hyrox txapelketaz gain, mundukoa ere ba al dago?

Mundialean lehiatzeko sailkatu egin behar da; alegia, onenak

soilik joaten dira. Esan bezala, kirol berria da Hyrox, beraz, oraindik zabaltze eta ezagutze prozesuan dago. Adibidez, Euskal Herrian, Bilbon, lehen edizioa egingo da hurrengo astean. Zera esan nahi dut, gutxinaka, oso ezaguna egiten ari den diziplina da, eta asko zabaltzen ari da Euskal Herrian, Espainian eta European.

Beraz, entrenamenduak ezingo dira edonon egin, ezta?

Gure kasuan, gimnasioa moldatu behar izan dugu; izan ere, Hyroxeko ariketa batzuk egiteko leku zabala edukitzea funtsezkoa da. Beraz, gunea moldatu eta makinaria berria erosi genuen. Nolabait esateko, gu izan ginen lehenengotarikoak horrelako entrenamendu gune bat osatzen. Egun, badira kirol hau praktikatu ahal izateko gune

gehiago; nire ustez, datozen hilabete eta urteetan sakon erro-tuko den diziplina izango da.

Txapelketan erakutsi duzun maila altua mantentzeko nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Denetariko entrenamenduak egiten ditut, baina, azken asteetan, burubelarri nabil hankak indartzen; korrika saioak egin eta mendira joaten naiz sarritan. Kirol proba guztietan oso garrantzitsuak dira hankak. Gainera, munduko errekorra egiteko gogor entrenatu beharko dut. Bestalde, lehen erantzunean aipatu ditudan kirol probak entrenatzen aritzen naiz ere.

50 urtetik gora horrelako kirol probetan parte hartzea erronka handia izan behar du...

Dudarik gabe. Betidanik kirol munduan murgilduta egon naiz, baina zahartzen ari naiz -kar,

kar, kar-. Fisikoki oso ondo nagoen arren, urteen pisua asko nabari da. Hori gutxi balitz, atzetik datozen gazteak harri-garriak dira, maila oso altukoak. Adibidez, Igor Arruti urnietarra oso ona da eta etorkizunean zeresana emango du; altua da, indartsua, lasterkari azkarra eta lehiakorra.

Datozen asteetan ba al duzu txapelketarik?

Bilbora joango gara BECen egin-goen probatara eta, aurrerago, Bartzelonara eta Malagara bidaiatuko dugu.

"ZORTZI KILOMETRO LASTERKA ETA ZORTZI ARIKETA EGIN BEHAR DIRA HYROX KIROL DIZIPLINAN"

SASKIBALOI Nesken lehen garaipena, denboraldi honetan

Infantil mailako nesken taldea denboraldi honetan abiatu da, eta aurrekoan Plastigaur-Ganbara taldeak garaipena lortu zuen, BKEren aurka (29-27). Kadete mailakoek, bestalde, igoera fasean hirutik hiru partida irabazi dituzte. Asteburuan Ordizia liderraren kantxan jokatu eta irabazi zuten (47-53). Junior mailan, etxeko derbian, nagusiak garaile: Ganbara-Aterpe (56-49).

ESKUBALOI Liderraren aurka galdu zuen Leizaran taldeak

1. lurraldeko senior mailako gizonetako ligan, Ordizia liderraren aurka galdu zuen Leizaran Ernio inmobiliaria taldeak (30-23). Galduta ere hirugarren postuan daude. Joaneokan eta itzulikoan, bietan, Ordizia nagusitu da. Asteburuan seigarren postuan sailkatuta dagoen Ormaiztegi jasoko dute etxean.

FUTBOLA Garaipen berria, ohorezko jubenil mailan

Jubenilen Ohorezko Mailako 17. jardunaldian, garaipen berria eskuratu zuen Euskaldunak, Elgoibarren aurkako partidaren (0-1). Bigarren postua sendotzeko garaipen garrantzitsua izan zen. Ubitarten ariko dira larunbatean, Beasainen aurka (16:00). Hiru puntu gehiago eskuratzeko aukera bikaina dute urdinean.

ERREMONTEA Ansa murgilduko da Kutxabank sarian

Barrenetxeak aurrerapauso garrantzitsua eman du Kutxabank Masters txapelketan; lau puntu eskuratu finaleko txartela lortzeko lehia bizian sartu da. Ezkurra garaitu zuen (30-27). Ezkurra lehia bizian aritu zen eta ia ez zuen hutsegiterik egin. Asteburuan, Ansa-Ezkurraren artekoa izango da Galarretako partida nagusia.

MATRIKULA LIBREA

HIZKUNTZA ETA MAILA ESKAINTZA **2023**

Frantsesa eta ingelesa A2 - B1 - B2 - C1

Matrikula eskaera egiteko epea:
Otsailaren 1etik 8ra

Gutxieneko adina:
16 urte 2023an betetzea

Prezioa:
36,18€

INFORMAZIOA

www.eoitolosaeo.hezkuntza.net
info@eoitolosaeo.net - 943 69 75 60



Juan Iguaran. DIVA



Martin Lizeaga. DIVA

Juan Iguaran Elustondo urnietarra gogoan

HERRI KIROLAK Herri-kirolen sustatzaile, 1962ko otsailaren 25ean desafio gogoangarrian parte hartu zuen

Erredakzioa URNIETA Ostiralean hil zen, 78 urte zituela. Urnietan aski ezaguna zen, eta Euskal Herrian barrena bereziki maitea herri kirolarien alde egindakoagatik. Urte luzez herri kirolarien lagunarteko bazkaria antolatzen zuen, sorleku zuen Eula sagardotegian. 2007an Joxeba Lizeagak 1962ko desafioa gogora ekarri zuen. Egin beharreko lana hauxe zen: 125 kilo harri zilindroarekin hamarna minutuko hiru txandatan nork jasoaldi gehien egin. Irabazlerik eta galtzailerik gabe bukatu zen, biek ere jasoaldi berdinak egin zituztelako: 103. Hona datuak: Iguaranek lehen txandan 36 jasoaldi egin zituen, bigarrenean 34 eta hirugarrenean 33. Lizeagak, aldiz, 35, 34 eta 34. Apustua serio hartu zuten. Martin Oriora joan zen bi hilabeterako, Luis Atxega harri-jasotzailearengana. Juan, berriz, Urnie-

tan Inazio Erkiziarekin aritu zen entrenatzen. Antzeko prestakuntza izan zuten biek: mendira atera, soka saltoan ibili eta harria altza. Bi urnietarrak prestaketa lanetan zebiltzan bitartean, bi bando sortu ziren herrian, baten edo bestearen alde zegoen jendearen artean. Giroa baretzeko asmoarekin, Dionisio Telleria orduko erretoareak, meza nagusi batean, apustuko gorabeherak bakean bukatzeko eskaria egin omen zien herritarrei. 2007an, Aiurri aitortu ziotenez, “lehia egon zen, baina haserterik ez. Apustua jokatu eta bi astera gu biok eta bi aldetako koadrilak elkarrekin egin genuen bazkaria Zaldundegin”. Ez zuten berdinduta bukatzerik espero, baina gerora pozik zeude horrela bukatu izanaz. Elkarren lagunak ziren apustua egin aurretik, eta hala izaten jarraitu zuten beti.

IGERIKETA Gipuzkoako Neguko saria, Andoainen

Larunbatean, otsailak 4, Gipuzkoako Neguko Saria ospatuko da Allurralden. Jardunaldia arratsaldeko 15:30ean hasiko da, eta Buruntzaldea IKT taldeak etxeko igerilarien guraso, familiakide, lagun zein igerilarien laguntza eskatu dute kronometratzaile eta bestelako lanak egiteko.

Urnietarren garaipen argia igoera faseko lehen partidari

FUTBOLA Lengokoak-Urnieta (2-6) emaitzarekin amaitu zen, lehen erregional mailan

Erredakzioa ANDOAIN Garaipen argia eskuratu zuen lehen erregional mailako taldeak, Donostian. Liga erregularrean Urnieta sendo agertu zen 4. multzoan. Lengokoak 1. multzoan zegoen eta ez zituen Urnietak adina garaipen eskuratu. Igoera faseko lehen partidari, behintzat, urnietarrak nagusitu dira. Lehen jardunaldia bada ere, Urnieta lehen postuan da eta atzetik du Sanpedrotarra B taldea. Bada, asteburu honetan elkarren aurka ariko dira.

ASTEBURUKO PARTIDA ZUBIETAN
18:30 Urnieta-Sanpedrotarra B / Lar, 5

DEIALDIA

ANTOLAKETA TALDEA URNIETA

Amaia Agirre Gonzalezi agur-ekitaldia



Larunbat honetan izango da agurreko ekitaldia, San Juan plazan, 17:00tan hasita. AIURRI

Datorren larunbatean, eta arratsaldeko 5etan hasita, agur ekitaldia egingo da Amaia Agirre mendizalearen ohoretan, Urnietako San Joan plazan. Fitz Roy mendia eskalatu ostean istripua izan zuten, eta elur-jauzi batek bere baitan jasota ditu Amaia Agirre eta Iker Bilbao. Ekitaldiaren helburua, Urnietako herriak familiari elkartasuna eta maitasuna adieraztea izango da, Amaia agur esatearekin batera.

Hauxe izango da ekitaldia. Lore eskaintza egingo da, baita agur dantza ere. Hurbileko zenbait pertsonen hitza hartzea espero da: Familiako kideak, Amaia lagunak, Egape ikastetxeak, herriko mendizaleak... Andoingo musika eskolako abesbatzak kanta bat abestuko du. Azkenik, antolatzaileek omenaldia agertzeko gonbitea luzatu nahi diete herritar eta mendizale guztiei.

kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2023

**OTSAILA 4 LARUNBATA
16:30ETIK AURRERA**

1. PARTIDUA (40 TANTO)
GOIKOETXEA V - ODEI vs
LOITEI - APEZETXEA

MASTER TXAPELKETA (30 TANTO)
ANSA II vs EZKURRA II

3. PARTIDUA (40 TANTO)
SEGUROLA - LARRANAGA vs
ALDABE - AZPIROZ

GALARRIETA JAI ALAI HERRANI

Oria Mendi | ERREMONTA BIZIRIK

Orona

PAPELEIRA GUPUZKOANA
LOI. DE. EDO. NAGA, S.A.

sukia

AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

ANDOAIN Erakusketa

Andoainen jaio eta Barasoainen hil zen Imanol Goikoetxea artistaren obrak ikusgai daude.

Otsailak 25. Bastero.

ANDOAIN Udal zerbitzuak

Ataria arreta bulegoa ostegun arratsalde zabalik izango da.

Ordutegia: 08:00-17:45.

ANDOAIN Sinadura-bilketa

C2aren alternatiba izan nahi duen dekalogoak aurkeztu du herriko plataformak, eta sinadura-bilketari ekin diote.

Hainbat tokitan.

ANDOAIN Lehiaketa

Martxoaren 8a iragartzeko lehiaketa deitu du Andoaingo Berdintasun sailak. Ondoko testua azaldu behar da: "Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguna. Andoain 2023".

450 euroko saria dago jokoan.

Lanak aurkezteko eguna:

Otsailak 8, Bastero Kulturgunea.

OSTIRALA 3

ANDOAIN Antzerkia

"Familia Sarekada". Nerea Gorriti, Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe eta Xanti Korkostegi: "Komedia katartikoa, Interneten pribatutasuna eraisten ari diren garaiotan".

20:00, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 4

ANDOAIN Puska Biltzea

Axeri Dantzako kideen eskutik, Sorabillan barrena ibiliko dira.

08:00 Elkartzea. Irunberri elkartea.

13:30 Emanaldia. Sorabilla, frontoia.

URNIETA Kantu-erronda

Santa Ageda bezperako kantu-erronda, Kantazaun taldearen eskutik.

12:00, San Juan plaza.

ANDOAIN Kantu-erronda

Santa Ageda bezperako kantu-erronda, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eskutik.

18:00, Dr.Huitzi 15etik abiatuta.



Santa Eskean ariko dira, Andoainen eta Urnietan. KATA

ANDOAIN, URNIETA Santa Ageda bezperako kantu-erronda

Andoainen eta Urnietan talde bana ariko da ohitura zaharra biziberrituz.

Urnietan, Kantazaunen eskutik. Andoainen, Larramendi Bazkunaren eskutik.

Otsailak 4, larunbata. 12:00, San Juan plaza. Urnieta.

Otsailak 4, larunbata. 18:00, Dr. Huitzi kalea. Andoain

URNIETA Omenaldia

Amaia Agirre Gonzalezen agurreko ekitaldia, lagunaren eta senideen eskutik. Parte hartzailea izango da, eta herritar guztiei zabalik. Haren heriotzak eragin handia izan du Urnietan, eta mendizaleen artean ere.

17:00, San Juan plaza.

URNIETA Batzarra

Denda Berri elkartearen batzarra, egoitzaren lokalean. 17:00etan lehene deialdian, eta 17:30ean bigarrenaren. 2022ko diru-sarrera eta gastuen balantzea eta onarpena aztergai izango dira. Baita 2023rako programa eta aurrekontua ere.

Galde-erreguekin amaituko da.

17:00, Denda Berri.

LARUNBATA 11

ANDOAIN Kaldereroak

Inauterien etorrera iragartzen duen taldea kale zale ibiliko da.

Arratsalde.

IGANDEA 12

URNIETA Haur antzerkia

"Perez Sagutxo"ren benetako istorioa taularatuko dute.


17:30, Sarobe. 3 euro.

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Ene Kantak taldearen ikuskizun berria, "Emozio Festa".

12:00-16:00, Bastero. 4 euro.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Lobo feroz**

Lar, 4. 19:30,

22:00.

Ig., 5. 19:30.

Astl, 6. 19:30,

22:00.

El asombroso**Mauricio**

Lar, 4. 17:00.

Ig., 5. 17:00.

La ballena

Lar, 11. 19:30,

22:00.

Ig., 12. 19:30.

Astl, 13. 19:30,

22:00.



SINOPSISIA

**Lobo feroz**

Zuzendaria: Gustavo Hernandez. **Gidoia:** Juma Fodde, Conchi del Rio. **Aktoreak:** Javier Gutiérrez, Adriana Ugarte, Rubén Ochandiano, Juana Acosta, Antonio Dechent, Fernando Tejero. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra, polizien artekoa. **Iraupena:** 106 min.

Intrigaz beteriko filma

Legearen ertzean dagoen polizia batek eta mendeku bila dabilen emakume batek beren bideak zeharkatzen dituzte,

hainbat neskatoen krimen basatien atzean ezkatzen den hiltzailea aurkitzearekin obsesionatuta.

Ekitaldiz beteriko hilabetea Urnietako Gaztelekuan

Ekintzaz jositako programazioa antolatu du otsailari begira: ping pong txapelketa, bizirauteko

jolasa, argazki collagea, sukaldaritza tailerra, inauterietako maskarak eta scape room, besteak beste. Gaztelekua 17:00etatik aurrera irekitzen da astelehenetik ostegunera LH6-DBH4 bitarteko gazteentzat.



andoaINDARRA
euskaraz

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



UDALA

Odol emaileei eskertza

Bost herritar omendu zituen Urnietako odol emaileen elkarteak, urteotan erakutsitako fidelitasunagatik: Alejandro Cobo Martin eta Aitziber Peñagarikano Artola (25 odol-emate), Concepción Estevez Ikutza (40 odol-emate), Julian Uzquiza Gaztañaga (50 odol-emate), Mercedes Olazabal Muniain (60 odol-emate).

Gaixotasuna eta maitasuna

"El glorioso caso de la vida" gazte filma eskainiko dute hurrengo asteazkenean, Bastero Kulturgunean (19:30). Milak gaixotasun larria du eta droga trafikatzailer txiki batez zeharo maitemintzen da. Harreman horrek aztoratuko du Milaren familia. Filmak aurrera egin ahala, kaosa, bizitzaren aldeko egoera bilakatzen da.



"EL GLORIOSO CASO DE LA VIDA"



UDALA

Berdintasunaren oihalak

Berdintasun sailak oihal-zatiak biltzeko deialdia egin du: "Animatu oihal zatiak ekartzera! Berdintasunaren koloreak josiko ditugu. Zapiak, maindire, telak... kolore guztietakoak. Martxoaren 4an oihal-zatiak presente egongo diren ekitaldira gonbidatu nahi zaituztegu!". Oihalak utzi daitezke, otsailaren 3an hasita, Udal liburutegian, Udaletxean, Allurralde kiroldegian eta Anbulatorioan.



Urtarrileko irakurrienak Aiurri.eus webgunean

Arantza Iartza Ansa eta Amaia Agirre Gonzalez izan dira protagonista nagusiak

Analisia | 2023, urtarrila

Aiurri astekaria

Zer esanik ez dago heriotzak eragin handia izaten duela gizarie-bizitzan. Urtarrilean, nabarmen, bi galera handi izan dira Andoainen eta Urnietan. Hilabetearen hasieran Arantza Iartza Ansa irakaslearen eta euskaltzalearen heriotzak eragin handia izan zuen andoaindarraren artean. Eta, berriki, antzera gertatu da Amaia Agirre Gonzalez gazteak Patagonian izandako ezbeharrarekin. Bi albiste horiek dira urtarrileko irakurrienak, Aiurri.eus webgunean. Galderak, erantzunak eta, horiek ezinezko badirenean, komunitate bereko kideen hausnarketak behar-beharrezkoak ditu komunitateak. Eta horrexegatik eskertzekoak dira Andoni Urbistondoren eta Jon Unanueren ekarpenak. Lehenak "Bizitza eta heriotza" idatzi zuen, Agirrerren gertaera gogoan. Eta bigarrenak, "Hutsik egiten ez zuena", Arantza Iartzaren omenez. Biak ala biak irakurrien artean daude.

Bideoen atalean ikusiena "Adarra mendian min hartutako pertsona bat helikopteroan eraman dute Ubitarte futbol zelaira" izan da. Eta argazki-bildumen artean, bi: "San Silbestre jendetsua eta umoretsua urteari agur esateko" eta "1985eko elurtearen argazki-bilduma".

Bisitaldi ugari izan ditu "Leizaran kirol komunitatearen festa bilakatu zen Errege Txapelketa" albisteak ere.

Albiste zehatzetara sartzen ez direnean, irakurle askoren joera Aiurri.eus klikatzea da. Argitalpenak, markak, duen irismenaren adierazgarri da.



AIURRI

Bertso derbia, osorik ikusgai

Basteron urtarrilaren 14an ospatu zen Bertsoderbia osorik jada ikusgai dago sarean, Bertsoa.eus webgunean klik eginda. Aitor Mendiluzek, Amets Arzallusek, Alaia Martinek, Sustrai Colinak, Jone Uriak eta Aitor Etxeberriazarragak osatu zuten saioa, Andoni Egaña gai jartzailearen esanetara jarrita. Bertan izan zirentzat gogoangarria izan zen.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo **publizitatea@aiurri.eus**

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak
Aiurrin:
90 euro

Tourra eta Kaletxikiko jaiak, bateraezinak

Uztailaren 2an Frantziako Tourra Alkizako gaineretik Andoain aldera iritsiko da, Urnietako bidea hartzeko. Erdiz erdi zeharkatuko du Kaletxiki, zeina egun horretan auzotarrak jaietako azken eguna ospatzen ariko diren. Bateraezintasuna sortu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Frantziako Tourra Euskal Herriko barrena igaroko da, uda honetan. Jakina zen, eta hori berez albiste ona da txirrindulariarentzat. Udako kirol ekimen arrakastatsuena da, asko eta asko direlako telebistatik zuzeneko jarraipena egiten duten zaleak. Haietako batzuk, gainera, Piriniotara joateko ohitura hartu dute txirrindulariari bertatik bertara animatzeko. Oraingoan, etxeko ataritik igaroko da txirrindularien karabana. Ibilbideari erreparatuz Donostiako Klasikaren ibilbide beretsua izango duela dirudi, bai behintzat inguru hauetako ibilbideari erreparatuta.

Alkizako gaineretik jaitsi eta Asteasuko eta Zizurkilgo errepideetan barrena Adunara iritsiko dira. Sorabillatik egingo du sarrera lasterketak, eta hortik herrigunera. Andoain atzean uzten hasiko dira Kaletxiki aldean, Urnietarantz abiatzeko.

Kaletxikiko jaiak

San Pedro egunaren bueltan ospatzen dira jaiak Kaletxikin. Ekainaren 29a osteguna da, eta ohiko denez jaiak iganderarte luzatuko lirateke. Baina Tourraren agerpenak alerta piztu du Jai Batzordean. Zer egin? Tourra igarotzean auzoa jaietan izatea posible da? Zein da biak batera aurrera eramateko ber-

mea? Seguritasun neurri zorrotzak bete behar dira profesional mailako edozein lasterketan. Eta Frantziako Tourrean neurri horiek are zorrotzagoak izan ohi dira. Auzotarrek gogoan dutenez, Klasikoa auzotik igarotzen denean edukiontziak espaloiara igo eta ibilgailuak bertatik kendu behar dituzte. Kaletxikiko plazan, jaietan, ikastetxearen ondoan txosna eta Berrozpe Kaperaren parean taula-gaina ipintzen dituzte. Gaurko egunez baterazinak dira bi ekitaldiak batera egitea. Kaletxikiko jaiak atzeratzea edo ospakizunak tokiz aldatzea, aukeren artean egon daiteke, Tourrak ez baitu egutegia aldatuko.



Uztailaren 30ean Kaletxikitik barrena igaroko den Donostiako Klasikoa. AIURRI



Kaletxikiko jaietako ospakizuna, iaeko igande arratsaldean. AIURRI

ZAIN DUGU AGATE DEUNA!

Urteroko usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara.

IRTEERA:

- Otsailak 4, larunbata. **18:00**
Doktor Huitzi kalea, 15. Bazkunaren egoitza.

